

# Antxiñako fotografixia



## Herrirako sarrera orain dala ehun bat urte

**H**olakotxia zan Oñatirako sarrera nagusixa Mondrague eta Bergara aldetik etorritta, orain dala ehunen bat urte-edo. Urbietako santutxu ingurutik atarata egongo da fotografixia: kamiñua zuzen-zuzen zixoian **Goribar** auzo eta arboledatik zihar **Kale Zaharre**-raiño. Ezkerrian lehenengo agiri dana **Urbiet**a baserrixa da, jakiña, eta aurrerago **Kasablank**ako etxiak; eskumakaldian **Ibai-ondo** eta **Aloña-alde** txalet jaso barrixak, **Goribar** baserrixa eta **Garaiñe**ko fabrikiaren tximinixia arbola artian erdi ezkutau-

ta; atzerago parrokixako kanpantorria eskuman eta **Zumeltzegi**ko torria ezkerretara; barrenian **Aloña-Aizkorri**ko mendi-illaria, ikusteko iñolako traba barik.

Kamiñuak eztaoko asfalturik artian, baiña bai oiñezkuentzako espaloi zabala eta horma formala. Ezagun da trafiko haundirik eztague-la, behixak trankil asko dabitz eta. Sasue haretan zaldi-kotxiak eta burdixak bakarrik ibilliko ziran seguruenik; kotxe modernuak eta kamioiak gerotxuago agertuko ziran, baiña

gizaldi honen erdixa ondo pasau arte, etzan trafikua ugaritu. Antzerako beste gauza bat 1960 ingururarte iraun eben soruen itxuria izan zan: ixa danetan garixa dago ereinnda; gaur egun, ostera, fabrikak, garajiak eta etxebizitzak dira nagusi paraje horreittan. Kamiñua bera bigarren maillakua bihurtu da sahiesbidia egin zanetik, eta erreka ertzetako arbolak nabarmen gutxitsu dira.

J.E.

*Gipuzkoa Postatxartelean liburutik hartutako argazkixa.*

## IRAZOLA

Indusketak  
Lur-mugimenduak

San Lorenzo, 7 - 3º Ezk.  
OÑATI Tfnoa: 78 25 97



## VGARTE PENTSVAK

AITOR UGARTE LIZARRALDE  
Pentsuak • Ongarriak • Haziak  
Irinak eta deribatuak  
Fitosanitario produktuak

Denda: Kale Barria, 2 Tfnoa: 78 03 04  
Biltegia: Aozaraza, 2 Tfnoa: 78 18 09  
ONATI